



FORU- ETA UDAL- HAUTESKUNDEAK, 2023

POSTA BIDEZKO BOTOA

Gipuzkoako PSE-EE


Prim, 15 – 20006 Donostia

Telf: 943 455 655 - Faxe: 943 465 372

asesoriajuridica@socialistasguipuzcoanos.com

www.socialistasguipuzcoanos.com

POSTA BIDEZKO BOTOA




Jarraitzen du

Itsaso zabalean dauden
hautesleak

Nazioarteko misioetan
dauden hautesleak

Espetxean dauden
hautesleak



Espainian bizi diren hautesle
atzerritarrek
udal-hauteskundeetan
BOZKATZEN DUTE

Espainian bizi diren hautesle
atzerritarrek
EZ DUTE foru-
hauteskundeetan **BOZKATZEN**

POSTA BIDEZ BOZKA DEZAKETE

1. Bozkatzegunean botoa eman behar duten herrian, hau da, **ERROLDATUTA DAUDEN** herrian ez direla egongo aurreikusten duten hautesleek.
2. **Gaixotasunagatik** edo desgaitasun fisikoagatik bozkatu behar den lekura bertaratu ezin duten hautesleek.
3. **Modu iraunkorrean atzerrian** bizi diren hautesleek.
4. **Prozesuaren deialdiaren eta prozesua egiten den egunaren artean** atzerrian **aldi baterako** dauden hautesleek.

EHE EPEAK

Espainiako Egoiliarren Hautesle Errolda (EHE)

ESKAERA

APIRILAREN 4tik MAIATZAREN 18ra

DOKUMENTAZIOAREN
BIDALKETA

Hauteskunde Erroldako Ordezkaritzak
dokumentazioa bidaliko du
maiatzaren 8tik maiatzaren 21era

BIDALTZEKO EPEA

Botoa posta ziurtatu bidez bidali
beharko da, MAIATZAREN 24a baino
lehen

ESKAERA ZEIN BIDALKETA POSTA ZIURTATU
BIDEZ EGIN BEHARKO DA

POSTA BIDEZ BOZKATZEKO PROZEDURA (EHE)

A. ESKAERA:

Eskaera zuzenean egin beharko dute interesdunek.

Eskaera eta bidalketarako gutun-azala bidali beharko zaizkio interesduna Hauteskunde Erroldan inskribatuta dagoen Errolda Bulego Probintzialari.

B. AURKEZTEKO LEKUA:

Bete eta sinatutako eskabidea Espainiako edozein postetxetan (Correos) aurkeztu beharko da. Eskatera jasotzeko ardura duen funtzionarioak NANA eskatuko dio interesdunari eta egiaztatuko du sinadurak bat datozen, ez da inola ere NANaren kopia onartuko.

C. BOTOA ESKATZEKO EPEA:

Deialdiaren datatik aurrera eska daiteke (APIRILAREN 4a), bozka-egunaren aurreko 10. egunera arte (MAIATZAREN 18a).

A. Beste pertsona batek zer kasutan eska dezake nire izenean posta bidezko botoa?

- Hauteskunde-legearen arabera, hautesle batek **gaixotasunagatik edo desgaitasunagatik** ezin badu posta bidezko botoaren eskabidea pertsonalki aurkeztu (medikuaren ziurtagiri ofizial eta doako baten bidez ziurtatu beharko da), beste pertsona baimendu batek egin ahal izango du bere izenean; horretarako, hautesle bakoitzarentzat modu indibidualean eta notario aurrean egindako dokumentua beharko da. Dokumentu berean ezin izango dira hautesle bat baino gehiago barne hartu, eta pertsona batek ezin izango du hautesle bat baino gehiago ordeztu.
- **Notario-zerbitzua guztiz doakoa da.**

Notarioa hauteslearen helbidera joango da, ospitalea izan, zaharren egoitza izan edo familiaren etxebizitza izan. Ondoren, botoa emateko ohiko prozedurari jarraituko zaio, eta ordezkaria edo ahalduna, haren NANarekin eta notario-ahalordearekin, edozein postetxera pertsonalki joan ahal izango da, eta botoa posta bidez emateko inprimakia eskatu.

Dokumentazioa ordezkariak pertsonalki jaso beharko du, bere nortasuna ziurtatu ostean.

Posta bidezko nire botoarekin arazoren bat badut, non erreklama dezaket?

- Eskabidea aurkeztu zenuen postetxera joan zaitezke, edo, bestela, zure tramitazioaren egoera kontsulta dezakezu Correosen web-orrian, www.correos.es. Posta-ziurtagiriaren kopian ageri den erreferentzia erabili beharko duzu.

B. AURKEZTEKO LEKUA (EHE)

- Bete eta sinatutako eskabidea **Espainiako edozein postetxetan (Correos)** aurkeztu beharko da. Eskabidea jasotzeko ardura duen funtzionarioak NANA eskatuko dio interesdunari eta egiaztatuko du sinadurak bat datozen. Ez da inola ere, NANaren fotokopia onartuko.

Posta-zerbitzuek behar bezala beteta dagoen eskabidea bidali beharko diote Hauteskunde Erroldaren Bulegoari. Horrenbestez, **posta bidezko botoa eskatzen duen hautesleak JADA EZIN DU PERTSONALKI BOZKATU.**

- Bidalketa **POSTA ZIURTATU** bidez egingo da.

C. POSTA BIDEZKO BOTOA AURKEZTEKO EPEA (EHE)

Posta bidezko botoa eskatzeko **lehen eguna**

2023ko APIRILAREN 4a

Posta bidezko botoa eskatzeko **azken eguna**

2023ko MAIATZAREN 18a

ERROLDARI ZUZENDUTAKO GUTUN-AZALA

CERTIFICADO
URGENTE
PRESAKO
ZIURTATUA

DELEGACIÓN PROVINCIAL DE LA OFICINA
DEL CENSO ELECTORAL
HAUTESLE ERROLDAREN BULEGOAREN
PROBINTZIA-ORDEZKARITZA

PROVINCIA PROBINTZIA	<input type="text"/>
-------------------------	----------------------

9.6

Remite / Igoilea:

Erroldatuta
dagoen
Probintziara
zuzendua

Ez ahaztu igorlea
jartzea

HAUTESKUNDE-BULEGOAK BOZKATZEKO DOKUMENTAZIOA BIDALTZEA

- Hauteskunde Erroldaren Bulegoak posta ziurtatu bidez bidaliko du dokumentazioaren gutun-azala hautesleak eskabide-inprimakian adierazitako helbidera, **MAIATZAREN 8tik 21era bitartean.**
- Interesdunak pertsonalki sinatu beharko du dokumentazio hori jaso izanaren jakinarazpena, betiere bere nortasuna egiaztatu ondoren.

DOKUMENTAZIOA

- AURKEZTEN DEN ALDERDI BAKOITZAREN BOTO-PAPERA
- BOZKATZEKO GUTUN-AZALA
- ERROLDAREN INSKRIPZIO-ZIURTAGIRIA
- BOZKATZEN DUEN HAUTESKUNDE-MAHAIKO PRESIDENTEARI ZUZENDUTAKO GUTUN-AZALA
- AZALPEN-ORRIA.

Boto-papera dagokion gutun-azalean sartu, eta gutun-azala itxi beharko da.

Errolda-ziurtagiria hauteskunde-mahaiko presidenteari zuzendutako gutun-azalean sartuko da (helbidea inprimatuta dago jada).

Honela bidaliko da:

POSTA ZIURTATU bidez

MAIATZAREN 24ra arte

(gutun-azal horrek ez du frankeorik behar)

AEHE BOTOA

MODU IRAUNKORREAN atzerrian bizi diren hautesleek

EZIN DUTE BOZKATU

AAHE BOTOA


ALDI BATERAKO atzerrian bizi diren hautesleek

BAI, BOZKA DEZAKETE



NOLA BOZKATZEN DUTE ALDI BATERAKO ATZERRIAN BIZI DIREN PERTSONEK (AAHE)

- Hauteslea Espainian erroldatuta badago, dagoen herrialdean dagokion kontsulatuko bulegora joan beharko du eta ez-egoiliar gisa inskribatu beharko du **Kontsulatuko Matrikula Erregistroan**.
- Ondoren, atzerritik **bozkatzeko eskabidea bete** beharko du, eta bulegoan bertan entregatu beharko du modu presentzian. Bulego hori arduratuko da herritarra Espainian erroldatuta dagoen lekura bidaltzeaz. **Boto-eskabidearen inprimaki ofiziala bete**.
- Hauteskunde Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzari zuzendu beharreko inprimakia hemen lor daiteke:
 - Bizi den hiriko kontsulatuan **apirilaren 4tik 29ra bitartean**
- Gero, eskabidean adierazitako helbidean **jasoko du** hautesleak **hauteskunde-dokumentazioa** eta informazio-orria. Gutun-azala posta ziurtatu bidez bidali beharko du dagokion Espainiako hauteskunde-mahaira. Nolanahi ere, gutun-azalak herritarra dagoen herrialdeko posta-bulego baten zigilua eduki beharko du, epearen barruan dagoela egiazta dadin.



AAHE BOTOAREN EPEAK

- **Posta bidezko botoa eskatzea:**
*** Apirilaren 4tik 29ra**
- **Dokumentazioa jasotzea:**
*** Maiatzaren 2tik 8ra**
- **Posta bidezko botoa bidaltzea:**
*** Maiatzaren 2tik 24ra**

HAUTESKUNDE-ERROLDA

Hauek osatzen dute hauteskunde-errola:

- Espainian bizi diren espainiarren hauteskunde-errola (EHE)
- ALDI BATERAKO** atzerrian bizi diren hautesle egoiliarren errola (AAHE)

HAUTESKUNDE HAUETAN EZ DUTE BOZKATZEN:

Atzerrian MODU IRAUNKORREAN bizi diren
pertsonek

Atzerrian bizi diren baina ALDI BATERAKO
Espainian dauden pertsonak